

## **HIRI GARBITASUNARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

### **HITZAURREA**

Udalierrien osasuna eta apaindura garrantzi handiko gaiak dira. Batzuetan benetako zabortegi bihurtzen diren herri eremu libre zein pribatuak, eta orubeak zaintzeak, kezka eta ardura berezia sortzen dio Udalbatza honi.

Bestalde, ezaguna da Udal honek, legeen mugen esparruan, edukia dena delarik ere, kartelak, pankartak, pintadak, eta halakok jarritegitzen diren baimenik gabeko publicitate eta propaganda jarduerak jazartzeko adierazi duen borondatea. Ordenantza honek, osasun, segurtasun eta apaindura ikuspegiez ari denez, hiri poliziaren ordenantza izaera du, eta ez zaie planeamenduaren jarraibide zehatzei lotzen.

## **ORDENANZA MUNICIPAL DE LIMPIEZA URBANA**

### **INTRODUCCION**

La salubridad y el ornato de los Municipios es un tema de singular importancia. El cuidado de los espacios libres públicos o privados y de los solares, que se convierten, a veces, en auténticos basureros son objeto de especial preocupación para esta Corporación.

Por otro lado, es conocida la voluntad expresada por este Ayuntamiento, referente a la persecución, dentro de los límites legales, de toda actuación no autorizada consistente en la realización de actividades de tipo publicitario o propagandístico a través de la fijación de carteles, pancartas, pintadas y otros análogos, sea cual sea su contenido. La presente Ordenanza, por venir referida a aspectos sanitarios, de seguridad y ornato, tiene la naturaleza de ordenanza de policía urbana, no ligada a directrices concretas de planeamiento.

### **I. KAPITULUA**

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

**1. ARTIKULUA.-** Udal Ordenanza hau Tokiko Araubideko Oinarriak Araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49 eta 84 artikuluek Lege Gorputz honen 26, 1a artikuluaren gainean, eta 1976ko apirilaren 9ko Lurraren Legearen 42 artikuluak testu horren 181 artikuluan eta 1978ko ekainaren 23ko Hirigintzako Diziplinako Arautegiaren 10. artikuluan agintzen duenaren gainean emandako ahalmenetan oinarritzu atera da.

**2. ARTIKULUA.-** Osasun, segurtasun eta

### **CAPITULO I**

#### **DISPOSICIONES GENERALES**

**ARTICULO 1.-** La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades conferidas por los artículos 49 y 84 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local 7/1985 de 2 de abril, en relación con el 26, 1a de este Cuerpo Legal, así como por el artículo 42 de la Ley del Suelo de 9 de abril de 1.976 en relación con lo preceptuado en los artículos 181 de dicho texto y 10 del Reglamento de Disciplina Urbanística de 23 de junio de 1.978.

**ARTICULO 2.-** Por venir referida a aspectos

apaindura gaietaz ari denez, Ordenanza honek Hiri Poliziaren Ordenanza izaera du, planeamendu zehatz baten jarraibideei lotu gabekoa, eta bere berezko indarra izan dezake planetatik kanpo.

**3. ARTIKULUA.-** Ordenanza honen xedea da ondoko jarduera hauek araupetzea, udal eskumenaren eremuaren barruan:

- Herri bideen garbitasuna.
- Orubeen garbitasuna eta hesitza
- Zaborren aurre bilketa, bilketa eta garraioa.
- Zabortegiak eta zaborrak eraldatu edo ezabatzeko instalazioak
- Larrialdiak
- Pintadak egin eta kartelak eta pankartak jartzea.

**4. ARTIKULUA.-** Ordenanza honetan araupetzen ez diren baina ezaugarri zein inguru abarrengatik aplikazioaren esparruan sartuta egon litezkeen balizko kasuetan, berdintasunez, bertan jasotzen den haien antzeko kasurako arauak aplikatuko zaizkio.

sanitarios, de seguridad y ornato, esta Ordenanza tiene la naturaleza de Ordenanza de Policía Urbana, no ligada a unas directrices de planeamiento concreto, pudiendo subsistir con vida propia al margen de los planes.

**ARTICULO 3.-** Esta Ordenanza tiene por objeto, regular dentro de la esfera de la competencia municipal, las siguientes actividades:

- Limpieza de las vías públicas.
- Limpieza y vallado de solares.
- Prerrecogida, recogida y transporte de basuras.
- Vertederos e instalaciones de transformación o eliminación.
- Casos de emergencia.
- Realización de pintadas y colocación de carteles y pancartas.

**ARTICULO 4.-** En los supuestos no regulados en la presente Ordenanza, pero que por sus características o circunstancias pudieran estar comprendidas en el ámbito de aplicación, le serán aplicadas, por analogía, las normas de la misma que guarden similitud con el caso contemplado.

## **II. KAPITULUA**

### **BIDEEN GARBIKETA**

**5. ARTIKULUA.-** Herri bideen sarearen garbiketa (kale, plaza, maila desberdinako ibilgailu zein oinezkoen igarobideak), eta

## **CAPITULO II**

### **LIMPIEZA DE LAS VIAS**

**ARTICULO 5.-** La limpieza de la red viaria pública (calles, plazas, paso a desnivel, tanto de tránsito rodado como peatonal) y la recogida de

garbiketa horretatik ateratzen den zaborraren bilketa kudeatze zuen zein zeharreko Garbiketa Zerbitzuaren eginkizunak izango dira, zerbitzua egoki betetzeko komeni diren maiztasun eta ordutegietan.

**6. ARTIKULUA.-** Jabari jabeduneko bide, eremu komun, berdegune eta abarren garbiketa jabetzak berak egin beharko du, maila egokiak iristeko Zerbitzu Teknikoek ezartzen dizkienetan jarraibideak betez.

Jabetzak, egiteko agindua jaso eta gero (Lurraren Legearen 181. art.) betebehar hori ondo betetzen ez duen kasuetan, garbiketa Udal Zerbitzuak egin ahal izango du, zuzenean zein zeharka, eta jabetza hori behartuta egongo da garbiketa zerbitzu horiek ordaintzera, legokiokeen zehapenari ezertan eragin gabe.

**7. ARTIKULUA.-** Beren jardueraren izaerarengatik herri gainazalak hartzen dituzten eta jarduera horren egintzan gainazala horiek zikintzen dituzten establezimenduen titularrek, eguna amaitzean dagokien eremua garbituko dute, eta garbiketaren ondoriozko zaborra jasoko dute, ondoren zabor bilketako zerbitzuei emateko.

Era berean, Udal Agenteek eskatzen dieten besteko aldiian behineko garbiketa ere egin beharko dute.

**8. ARTIKULUA.-** Sortzen dituzten hondakinek herri bidea zikintzen dutela egiaztatzen zaien hesien lizentziaren titularrak, publizitate agentziak, eta abar, zehatuko dira.

Edonola ere, jabe horiek une oro bete beharko dute oraingo Legedian jarduera horretarako ezarrita dagoen araudia.

los residuos procedentes de la misma, será realizada por el Servicio de Limpieza por gestión directa o indirecta, con la frecuencia y horarios convenientes para la adecuada prestación del servicio.

**ARTICULO 6.-** La limpieza de las vías, zonas comunes, zonas verdes etc. de dominio particular, deberá llevarse a cabo por la propiedad, siguiendo las directrices que dicten los Servicios Técnicos para conseguir unos niveles adecuados.

En los casos en que la propiedad, previa orden de ejecución, (art. 181 Ley del Suelo) no cumpla debidamente esta obligación, la limpieza podrá ser efectuada por el Servicio Municipal de forma directa o indirecta y dicha propiedad estará obligada a pagar el importe de los servicios prestados, sin perjuicio de la sanción a que hubiere lugar.

**ARTICULO 7.-** Los titulares de establecimientos que por la naturaleza de su actividad ocupen superficies públicas y en el desarrollo de dicha actividad ensucien las mismas, deberán proceder al final de la jornada a la limpieza del área correspondiente, y a la recogida de sus productos para su posterior entrega a los servicios de recogida.

Así mismo, deberán proceder a la limpieza periódica tantas veces como sean requeridos por los Agentes Municipales.

**ARTICULO 8.-** Serán sancionados los titulares de licencias de vallas, agencias de publicidad etc., a los que se compruebe, que sus residuos producen suciedad en la vía pública.

De cualquier modo, dichos propietarios deberán cumplir en todo momento la normativa establecida para esta actividad en la actual

Legislación.

**9. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago herri bidera edozein hondakin mota bota zein bertan lagatzea.

Debekatuta dago herri bidera hondakin txikiak, hala nola, paperak, plastikoak, estalkiak, eta abar botatzea, horiek jasotzeko paperontzietara bota behar baitira.

Debekatuta dago, era berean, ibilgailuetatik edozein hondakin botatzea, bai martxan bai geldituta daudenean.

**10. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago herri bideak zikin ditzakeen edozer egitea, bereziki ibilgailuak garbitu eta ikuztea, hondakinen manipulazio zein hautaketa, edozein garbiketaren ondoriozko ura hustea, herri bideak zikin ditzaketen ibilgailuen ohiko konponketak egitea, eta abar.

**11. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago tapizak, alfonbrak, esterak eta etxeetan erabiltzen diren gainerako arropak herri bidera ematen duten ate, balkoi eta leihoetatik astintzea 9etatik 23etara bitartean.

**12. ARTIKULUA.-** Dendetako erakusleihoa, ate, toldo edo gortinak herri bidea zikin ez dadin modura garbituko dira. Garbiketa horiek herri bidea zikintzen duten kasuetan, interesatuak bere kontura garbituko du, legozkiokeen zehapenei biderik itxi gabe.

**13. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago edozein material garraiatzearen ondorioz galtzada zikintzea, eta horren erantzukizuna indarreko

**ARTICULO 9.-** Queda prohibido arrojar o abandonar en la vía pública cualquier tipo de residuo.

Queda prohibido arrojar a la vía pública aquellos pequeños residuos tales como papeles, plásticos, envoltorios etc., que deberán ser depositados en las papeleras destinadas a este fin.

Se prohíbe, asimismo, arrojar cualquier tipo de residuo desde los vehículos, ya sea en marcha o parados.

**ARTICULO 10.-** Queda prohibido realizar cualquier operación que pueda ensuciar las vías públicas y de forma especial el lavado y limpieza de vehículos, la manipulación o selección de los desechos, el vaciado de agua de cualquier tipo de limpiezas, las reparaciones habituales de vehículos en la vía pública y que conlleven el ensuciarla etc.

**ARTICULO 11.-** Queda prohibido el sacudir tapices, alfombras, esteras y demás ropas de uso doméstico en puertas, balcones o ventanas que miran a la vía pública entre las 9 y 23 horas.

**ARTICULO 12.-** La limpieza de los escaparates, puertas, toldos o cortinas de los establecimientos comerciales, se llevará a cabo de tal manera que no ensucien la vía pública. En aquellos casos en que estas operaciones ensucien la vía pública, el interesado procederá a la limpieza a su cargo, sin perjuicio de las sanciones a que hubiera lugar.

**ARTICULO 13.-** Queda prohibido ensuciar la calzada por el transporte de cualquier tipo de material, siendo la responsabilidad la señalada

berariazko legedian garraio mota bakoitzerao ezarrita dagoena izango da.

**14. ARTIKULUA.-** Higiene, espacio, estética eta garbitasun arrazoiengatik, debekatuta dago produktuen erakusketa denda zein merkataritzako establezimenduetatik kanpo jartzea.

**15. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago denda, establezimendu, loja, atari eta abarrak erratzatu eta hondarrak herri bidera, estolderia sarera, eta abar, botatzea.

Erratzatzearen ondoriozko hondarrak jaso eta zabor poltsetan sartuko dira, ondoren zabor bilketako zerbitzuei emateko.

por la legislación específica vigente para cada tipo de transporte.

**ARTICULO 14.-** Por razones de higiene, espacio, estética y de limpieza, queda prohibida la exposición de productos fuera del ámbito de los comercios o establecimientos mercantiles.

**ARTICULO 15.-** Queda prohibido arrojar a la vía pública, red de alcantarillado etc. los productos del barrido interior de comercios, establecimientos, lonjas, portales etc.

Estos serán recogidos y depositados en las correspondientes bolsas de basura para su posterior entrega al servicio de recogida de basura.

### III. KAPITULUA

#### ORUBEEN GARBIKETA ETA HESITZEA

**16. ARTIKULUA.-** Orube izango dira, Ordenanza honen ondoreetarako, ondoko hauek:

- a) Lurraren Legearen 82. artikulan arautzen denarekin bat datozelako eraikitzeko modukoak diren hiri lurraren gainazalak.
- b) Luze-labur txiki, forma irregular zein kokagunearengatik erabilpen egokirik izateko modukoak ez diren lur zatiak.
- c) Eraikuntza geldiaraziak, aurri egoerakoak, eroriak zein dauden tokirako desegokiak direnak daudeneko lur sailak.

**17. ARTIKULUA.-** Orubearen hesitza esaten denean esan nahi da eraikuntza berriko kanpoko obra, betirako zein aldi baterako izan daitekeena,

### CAPITULO III

#### LIMPIEZA Y VALLADO DE SOLARES

**ARTICULO 16.-** Tendrán la consideración de solares a los efectos de esta Ordenanza:

- a) Las superficies de suelo urbano aptas para edificación por estar ubicadas conforme a lo preceptuado en el artículo 82 de la Ley del Suelo.
- b) Las parcelas no utilizables que por su reducida extensión, forma irregular o emplazamiento no son susceptibles de uso adecuado.
- c) Las fincas en las que existiesen construcciones paralizadas, ruinosas, derruidas o inadecuadas al lugar en que radiquen.

**ARTICULO 17.-** Por vallado de solar ha de entenderse obra exterior de nueva planta, de naturaleza no permanente, limitada al simple

orubea fisikoki ixteko baino ez dena.

**18. ARTIKULUA.-** Udal Zerbitzuek udalerriko lur zatiak, obrak eta instalazioak ikuskatuko dituzte exijitzeko moduko baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko.

**19. ARTIKULUA.-** Debekatuta dago herri jabetza zein jabetza pribatuko orube eta espazio libreetara zaborrak, hondakin solidoa, balio ez duten gauzak, eta abar botatzea.

**20. ARTIKULUA.-** Orubeen jabeek orubeok herri segurtasun, osasun eta apaindura baldintzetan edukiko dituzte, eta debekatuta daukate bertan zaborrak, hiri hondakin solidoa, balio ez duten gauzak, obra hondarrak eta abar edukitzea.

**21. ARTIKULUA.-** 1. Alkateak, ofizioz zein edozein interesatuk eskatuta, aurretiaz zerbitzu teknikoek txostena egin eta titular erantzuleari entzunda, orubeetan dauden akatsak adierazteko ebazapena emango du, akatsok zuzentzeko behar diren neurriak eta neurri horiek betetzeko epea ezarri.

2. Emandako epea agortu eta behar diren neurriak hartu eta bete ez badira, Alkateak zehapen expedientea irekitzeko agindua emango du, eta expediente hori Administrazioko Prozedurako Legearen arabera bideratuko da, akatsak gainditzen egin behar diren obra eta lanen balioaren 100eko 10etik 20ra bitarteko isuna jarri. Ebazpenean, gainera, jabeari zein administratzaleari emandako agindua bete dezan eskatuko zaio, eta betetzen ez badu, Udalak egingo du behartuaren kontura, lehen esandako legearen testuan aurreikusten den egintza subsidiarioaren prozeduraren bitartez.

cerramiento físico del solar.

**ARTICULO 18.-** Los Servicios Municipales ejercerán la inspección de las parcelas, las obras y las instalaciones del término municipal para comprobar el cumplimiento de las condiciones exigibles.

**ARTICULO 19.-** Queda prohibido arrojar basuras residuos sólidos, objetos inservibles etc. en solares y espacios libres de propiedad pública o privada.

**ARTICULO 20.-** 1. Los propietarios de solares deberán mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad y ornato público, quedándoles prohibido mantener en ellos basuras, residuos sólidos urbanos, objetos inservibles, escombros, etc.

**ARTICULO 21.-** 1. El Alcalde, de oficio o a instancia de cualquier interesado, previo informe de los servicios técnicos y oído el titular responsable, dictará resolución señalando las deficiencias existentes en los solares, ordenando las medidas precisas para subsanarlas y fijando un plazo para su ejecución.

2. Transcurrido el plazo concedido sin haber ejecutado las medidas precisas, el Alcalde ordenará la incoación del expediente sancionador, tramitándose conforme a la Ley de Procedimiento Administrativo, con imposición de multa que será del 10 al 20 por 100 del valor de las obras y trabajos necesarios para superar las deficiencias. En la resolución, además, se requerirá al propietario o a su administrador para que proceda a la ejecución de la orden efectuada, que, de no cumplirla, se llevará a cabo por el Ayuntamiento con cargo al obligado, a través del procedimiento de ejecución subsidiaria previsto en el anteriormente citado texto legal.

**22. ARTIKULUA.-** Orubeen jabeek orubeak hesituta edukiko dituzte, eraikuntza berriko obrarik egiten ez den bitartean, herri osasun eta apaindura arrazoiengatik.

**23. ARTIKULUA.-** Alkateak, ofizioz zein interesatuak eskatuta, orubea hesitzeko agindua emango du, ebazpenean hesitzearen baldintzak eta epea zehatztuz, aurretiaz Zerbitzu Teknikoek txostena egin eta jabeari entzunda.

2. Egintzarako aginduak agindutako jarduera egiteko lizentzia ematen dela esan nahi du.

3. Emandako epea agortu eta obrak egin ez badira, Ordenanza honetako 21. artikuluau esaten dena egingo da.

**ARTICULO 22.-** Los propietarios de solares deberán mantenerlos vallados, mientras no se practiquen obras de nueva construcción, por razones de salubridad y ornato público.

**ARTICULO 23.-** 1. El Alcalde, de oficio o a instancia de interesado, ordenará la ejecución del vallado de un solar, indicando en la resolución los requisitos y plazo de ejecución, previo informe de los Servicios Técnicos y oído el propietario.

2. La orden de ejecución supone la concesión de la licencia para realizar la actividad ordenada.

3. Transcurrido el plazo concedido sin haber ejecutado las obras, se procederá conforme a lo previsto en el artículo 21 de esta Ordenanza.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **ZABORREN AURREBILKETA, BILKETA ETA GARRAIOA**

##### **LEHEN ATALA: ARAU OROKORRAK**

**24. ARTIKULUA.-** Epigrafe honen barruan zabor bilketako zerbitzuaren erabiltzaileek hiri hondakin solidoa prestatu eta husteari dagokienez bete behar dituzten arauak sartzen dira.

**25. ARTIKULUA.-** Hondakin solidoen bilketari dagokion guztirako azaroaren 19ko "Zaborrak. Hiri hondar eta hondakin solidoen bilketa eta tratamendua" delako 42/1975 Legea aplikatuko da.

#### **CAPITULO IV**

##### **PRERRECOGIDA, RECOGIDA Y TRANSPORTE DE BASURAS**

##### **SECCION PRIMERA: NORMAS GENERALES**

**ARTICULO 24.-** Se comprende bajo este epígrafe las normas que deben ser cumplidas por los usuarios del servicio de recogida de basuras referentes a la presentación y evacuación de los residuos sólidos urbanos.

**ARTICULO 25.-** Para todo lo relativo a la recogida de residuos sólidos serán de aplicación la Ley 42/1975 de 19 de noviembre "Basuras. Recogida y tratamiento de los desechos y residuos sólidos urbanos".

**26. ARTIKULUA.**- Hondakin solidoen bilketa Getxoko Udalak ezarriko du egoki irizten dien maiztasun eta ordutegietan. Ordutegi eta maiztasun aldarazpen oro behar beste denboraz iragarriko da.

**27. ARTIKULUA.**- Udalak Hondakinen bilketa eta garraioa zuzenean zein zeharka kudeatu ahal izango du. Hondakinak horiek biltzeaz arduratzen diren langileei baino ez zaizkie emango, eta beste edozein pertsona fisiko zein juridikori ematen dizkionak harekin batera erantzun beharko du hondakinen ondorioz sor litekeen edozein kalterengatik, legokiekeen zehapenei ezertan ukitu gabe. Inola ere, ez eta ezergatik ere, ez zaizkie hiri hondakin solidoa kaleak erratzatu edo ureztatzeaz arduratzen diren langileei. Hala egitekotan, zehapena etorriko da.

**28. ARTIKULUA.**- Ez da inolako hondakin solidorik hustu ahal izango estolderiaren saretik, ez eta Nerbioi-Ibaizabal beherearen (Bilbo Handiaren Eskualdea) saneamenduko sistema orokorrean Hondar Uren Isurketa eta Arazketa araupetzen duen Arautegian adierazten diren hondakin likidoak ere.

**29. ARTIKULUA.**- Hondakin solidoeak, beren izaerarengatik eta ezaugarri fisiko edo kimikoengatik, eta Zerbitzu Burutzaren iritziz, toxiko, arriskutsu zein erabiltzeko zail bihurtzen direnean, hondakin solido horien ekoizle edo jabeari exijituko zaio, bildu baino lehen, ezaugarri horiek ezabatu edo neurri egokian murrizteko tratamendua egin diezaiela, eta modu eta toki egokietan utz ditzala, Zerbitzu Teknikoek dagokien egiaztapena egin ondoren.

**ARTICULO 26.-** La recogida de residuos sólidos será establecida por el Ayuntamiento de Getxo con la frecuencia y horario que estime oportuno. Todo cambio de horario y frecuencia será hecho público con antelación suficiente.

**ARTICULO 27.-** La recogida y el transporte de residuos, podrá llevarse a cabo por el Ayuntamiento por gestión directa o indirecta. La entrega de los residuos solo se hará al personal dedicado a la recogida de los mismos, y quien los entregue a cualquier otra persona física o jurídica, deberá responder solidariamente con ésta por cualquier perjuicio que se produzca por causa de aquéllos, independientemente de las sanciones a que hubiera lugar. En ningún caso, ni bajo ningún pretexto deben de entregarse los residuos sólidos urbanos a los operarios encargados del barrido y riego de las calles. En caso contrario será sancionado.

**ARTICULO 28.-** Ningún tipo de residuos sólidos podrá ser evacuado por la red de alcantarillado, así como los Residuos líquidos señalados en el Reglamento Regulador del Vertido y Depuración de las Aguas Residuales en el sistema general de saneamiento del bajo Nervión-Ibaizabal (Comarca del Gran Bilbao).

**ARTICULO 29.-** Cuando los residuos sólidos por su naturaleza, así como por sus características físicas o químicas, y a juicio de la Jefatura del Servicio, se hagan tóxicos, peligrosos o de difícil manejo, se exigirá al productor o poseedor de los mismos que, previamente a su recogida, realice un tratamiento para eliminar o reducir adecuadamente estas características y que los deposite en forma y lugar adecuados, tras la comprobación oportuna efectuada por los Servicios Técnicos.

**30. ARTIKULUA.-** Pertsona fisiko zein juridiko batek ere ezin izango du hondakinaren bilketa eta aprobetxamenduan aritu Getxoko Udalaren onespenik gabe, azaroaren 19ko 42/1975 legearen arabera.

**31. ARTIKULUA.-** Udalak, beharrezko irizten dionean, hondakinak sailkatuta prestatzea exijitu ahal izango du.

#### **BIGARREN ATALA: ONTZI ETA EDUKIONTZI NORMALIZATUAK**

**32. ARTIKULUA.-** Hiri hondakin solidoa husteko ontzi eta edukiontzia normalizatuak erabiltzea nahitaezkoa da.

Ontzi normalizatuak gehienez 70 litro eta gutxienez 150 mikrako galga duten plastikozko poltsak dira.

Edukiontzia normalizatuak Udalak normaltzen dituen motako 120, 240, 360, 800 eta 1.100 litroko edukiontzia izango dira.

**33. ARTIKULUA.-** Ontzi normalizatuak herri bidean gaueko 8,45etik 9,45era bitartean utziko dira, Udalak adierazten dituen tokietan, zerbitzua egoki betetzeko behar den maiztasunaz. Ontziak ondo itxita utziko dira, korapilo, sokalaster edo zinta itsaskorrez lotuta.

**34.- ARTIKULUA.-** Ontzi horiek Udalak bilketako kamioiek jaso ditzaten ezartzen dituen tokietan utziko dira. Trafiko arazoengatik, zirkulazioko arauengatik, jabetza partikularrengatik eta abarrengatik oztoporik

**ARTICULO 30.-** Ninguna persona física o jurídica podrá dedicarse a la recogida y aprovechamiento de los residuos sin la aprobación del Ayuntamiento de Getxo y de acuerdo con la Ley 42/1975 de 19 de noviembre.

**ARTICULO 31.-** El Ayuntamiento podrá exigir, cuando lo estime necesario, la preparación selectiva de los residuos.

#### **SECCION SEGUNDA: ENVASES Y RECIPIENTES NORMALIZADOS**

**ARTICULO 32.-** Es de uso obligatorio la utilización de envases y recipientes normalizados para la evacuación de los residuos sólidos urbanos.

Envases normalizados son bolsas de plástico de no más de 70 lts. y con galga mínima de 150 micras.

Por recipientes normalizados se entenderán los contenedores de 120, 240, 360, 800 y 1.100 lts. del tipo que normalice el Ayuntamiento.

**ARTICULO 33.-** Los envases normalizados serán colocados en la vía pública entre las 8,45 y las 9,45 de la noche en los lugares indicados por el Ayuntamiento con la frecuencia necesaria para la adecuada prestación del servicio. Dichos envases serán depositados perfectamente cerrados mediante nudos, lazos corredizos o cintas adhesivas.

**ARTICULO 34.-** Estos envases serán depositados en los lugares indicados por el Ayuntamiento para su recogida por los camiones recolectores. En los casos en que se tenga dificultad por problemas de tráfico, normas de

sortzen den kasuetan, Zerbitzuko Burutzak ontzi eta edukiontzia normalizatu horiek bilduko direneko puntu zehaztuko du.

**35. ARTIKULUA.-** 1. Edukiontzia normalizatuak Zerbitzuko Burutzak aurretiaz adierazten dituen puntuetan jarriko dira.

2.- Edukiontiok behar bezala erabiltzeko, ondoko arauak beteko dira:

- a) Erabiltzaileak esleituta daukan edukiontzia baino ez du erabiliko.
- b) Edukiontzia etxeen sortzen zaizkion zaborrak botatzeko bakarrik erabiliko du, ez baitu likidorik isurtzeko, obretako hondarrik eta abarrik botatzeko, ez eta balio ez duen altzari eta tresnarik eta hildako animaliarik ere lagatzeko erabiliko.
- c) Ez da inoiz utziko edukiontzian erretzen ari den ezer. Errautsik botatzekotan, aurretiaz hoztu egin beharko dira.
- d) Zaborrak edukiontiaren barruan sartuko dira, gainezka egin dezan eta ingurueta hondarrak pila daitezen saihestuz.
- e) Edukierari ahalik eta etekinik handiena aterako zaio. Horretarako tamaina handiko gauzak (kutxak, kartoia, eta abar) zatituta edo txikituta sartuko dira.
- f) Edukiontzia erabili ondoren estalkia itxi beharko da.

**36. ARTIKULUA.-** Udalak, auzune, urbanizazio eta abarren ezaugarrieik aukera ematen dutenean beti ere, bilketako sistema aldatu ahal izango du, ontzi ala edukiontzia normalizatuak berdin erabiliz, eta herri bidean koka daitezen ezarriz.

circulación, propiedades particulares etc. para su recogida, la Jefatura del Servicio fijará el punto para la concentración de estos envases y recipientes normalizados.

**ARTICULO 35.-** 1.- Los contenedores normalizados estarán colocados en los puntos que previamente indique la Jefatura del Servicio.

2.- Para una utilización correcta de estos contenedores se cumplirán las siguientes normas:

- a) El usuario utilizará únicamente el contenedor que tenga asignado.
- b) Sólo deberá utilizar el contenedor para las basuras que se producen en su vivienda, no utilizándolo para el vertido de líquidos, escombros de obras etc., así como tampoco para muebles y enseres inútiles y animales muertos.
- c) No se depositará nunca en el contenedor ningún material en combustión. En caso de verter cenizas, previamente serán enfriadas.
- d) Las basuras se alojarán en el interior del contenedor, evitando su desbordamiento y la acumulación de los residuos en sus alrededores.
- e) Se aprovechará al máximo su capacidad. Para ello se romperá cualquier objeto voluminoso (cajas, cartones, etc.)
- f) Una vez utilizado el contenedor se deberá cerrar la tapa.

**ARTICULO 36.-** El Ayuntamiento y siempre que las características del barrio, urbanización etc. lo admitan, podrá en cada caso, cambiar el sistema de recogida, usando indistintamente envases o recipientes normalizados, pudiendo fijar su localización en la vía pública.

**37. ARTIKULUA.-** Edukontzi partikularrak ezin izango dira inola ere herri bidean utzi, Garbiketako Zerbitzukoak salbu.

**38. ARTIKULUA.-** Udalak zuzenean zein zeharka kudeatuko duen balio ez duten altzari eta etxeeko tresnak jasotzeko zerbitzua edukiko du, eskatzen duen udalerriko edozein bizilaguni erantzuteko.

**39. ARTIKULUA.-** Erabilpen partikularreko edukiontzien mantentzea, garbiketa eta zaintza erabiltzaileen esku egongo da, Udalak hasieran edukiontzia esleitu izan arren.

**ARTICULO 37.-** En ningún caso, y salvo los contenedores del Servicio de Limpieza, se podrán dejar los contenedores particulares en la vía pública.

**ARTICULO 38.-** El Ayuntamiento, por gestión directa o indirecta, tendrá un servicio de recogida de muebles y enseres domésticos inútiles para todo aquél vecino del Municipio que lo solicite.

**ARTICULO 39.-** El mantenimiento, limpieza y conservación de los contenedores de uso particular deberá ser llevado a cabo por sus usuarios, aun cuando el Ayuntamiento les hubiese asignado inicialmente el contenedor.

## V. KAPITULUA

### ZABORTEGIAK ETA ZABORRAK ERALDATU ETA EZABATZEKO INSTALAZIOAK

**40. ARTIKULUA.-** Zabortegiei eta hiri hondakin solidoak eraldata edo ezabatzeko instalazioei dagokienez, azaroaren 19ko 42/1975 Legeak dioena egingo da.

Esandakoa betetzen ez duen zabortegi oro klandestinotzat hartu eta berehala itxiko da, aurreikusitako zehapenei eta litzkeen erantzukizunei biderik itxi gabe.

### VERTEDEROS E INSTALACIONES DE TRANSFORMACION O ELIMINACION

**ARTICULO 40.-** En lo referente a vertederos e instalaciones de transformación o eliminación de residuos sólidos urbanos se llevará a efecto la Ley 42/1975 de 19 de noviembre.

Todo vertedero que no cumpla con lo anteriormente mencionado, será considerado clandestino e inmediatamente clausurado, sin perjuicio de las sanciones previstas y de las responsabilidades a que hubiera lugar.

## VI. KAPITULUA

### LARRIALDIAK

**41. KAPITULUA.-** Elurteak direnean, hiri etxaldeetako langileak, jabeak zein auzokideak

## CAPITULO V

## CAPITULO VI

### EMERGENCIAS

**ARTICULO 41.-** En caso de nevadas, los empleados de fincas urbanas, la propiedad o los

beren fatxadei dagokion luzerako espaloitik elurra eta izotza garbitzera behartuta daude, eta jasotako elurra edo izotza espaloiaaren ertzaren luzean utziko dute, ez galtzadan, uraren eta ibilgailuen zirkulaziorik ez oztopatzeko moduan, ez eta hustubideetan ere, ez dezaten ura husteko bide normala eragotzi.

vecinos, están obligados a limpiar de nieve y hielo las aceras en la longitud correspondiente a su fachada, depositando la nieve o hielo recogido a lo largo del borde de la acera, pero no en la calzada, para no impedir la circulación del agua ni la de los vehículos, ni en sumideros para que no impidan la normal afluencia de evacuación del agua.

**42. ARTIKULUA.-** Elurte, gizarte gatazka zein halabeharrezko beste egoera batzuetan, zerbitzua betetzeko modurik ez dagoenean, udalak aurretiaz jakinarazita, udalerriko bizilagunek ez dituzte zaborrak aterako. Iragarpena zaborrak pilatu ondoren egiten bada, erabiltaile bakoitzak bere ontzia berreskuratuko du eta ez du aterako zerbitzua normaltzen den arte.

**ARTICULO 42.-** En aquellos casos tales como nevadas, conflictos sociales u otras situaciones de fuerza mayor, etc. que no sea posible prestar el servicio, y previa comunicación municipal, los vecinos del Municipio se abstendrán de sacar sus residuos. En el caso de que el anuncio fuese con posterioridad a la acumulación de sus residuos, cada usuario deberá recuperar su envase y no entregarlo hasta que se normalice el servicio.

## VII. KAPITULUA

### PINTADAK EGIN ETA KARTELAK ETA PANKARTAK JARTZEA

#### 10. ATALA.- PINTADAK EGITEARI DAGOKIONA.

**43. ARTIKULUA.-** 1. Ordenanza honen ondoreetarako, "pintada" horma edo paretetan, espaloi edo galtzadetan zein udalerri barruko egiturazko elementuetan eta hiri altzarietan egiten diren inskripzioak dira.

2. Debekatuta dago herri bidean edozein pintada egitea, hala nola, udalerriko egiturazko elementuetan, galtzada, espaloi eta hiri altzarietan, hormetan zein kanpoko pareta eta fatxadetan.

## CAPITULO VII

### REALIZACION DE PINTADAS Y COLOCACION DE CARTELES Y PANCARTAS

#### SECCION 10 DE LA REALIZACION DE PINTADAS

**ARTICULO 43.-** 1. A los efectos de la presente Ordenanza, se entenderá por "pintada", las inscripciones que se realicen sobre los muros o paredes, sobre las aceras y calzadas o sobre cualquiera de sus elementos estructurales y mobiliario urbano dentro del Término Municipal.

2. Se prohíbe la realización de toda clase de pintadas en la vía pública, tanto sobre sus elementos estructurales, calzadas, aceras y mobiliario urbano, como sobre los muros y/o paredes exteriores o fachadas del Municipio.

3. Aurreko zenbakian xedatuari dagokionez, orubeetako hesietan, artekormetan eta abarretan Alkatetza-Udalburutzaren baimenez egiten diren pintada eta horma irudi artistikoak salbuesten dira.

Baimenaren eskariarekin batera, eta aginduzkoak diren baldintzak betetzearekin lotu gabe, higiezinaren jabetzaren adostasunaren frogagiriak eta egin nahi den horma irudiaren zirriborroa ere aurkeztuko dira

3. Se exceptúan en relación con lo dispuesto en el numero anterior, las pintadas murales de carácter artístico realizadas sobre las vallas de los solares, medianerías etc. que sean autorizadas por la Alcaldía-Presidencia.

A la solicitud de autorización y sin perjuicio de la observancia de los requisitos que procedan con carácter preceptivo, se acompañará documentación acreditativa de la conformidad de la propiedad del inmueble y boceto del mural que se pretende realizar.

**44. ARTIKULUA.-** Baimenean, edonola ere, erakustaldiaren iraupena adieraziko da, eta Alkatetza-Udalburutzak egoki irizten dizkien zehaztapen eta baldintza berezi guztiak ere bai.

**ARTICULO 44.-** La autorización expresará, en todo caso, la duración de la exposición y cuantas otras especificaciones o condicionamientos particulares estime oportunos la Alcaldía Presidencia.

**45. ARTIKULUA.-** Pintada ezabatzeari baimenaren epea amaitzen den egunaren bihamarunean ekingo zaio, eta zazpi egunean erabat ezabatuta egon beharko du, bestela, udal zerbitzuek ezabatuko baitute, ordezko egintzan, gastuak pintada egin dutenen, edo bestela, pintada sustatzen dutenen kontura joango dira.

**ARTICULO 45.-** Será iniciado el borrado de la pintada al día siguiente al del vencimiento del plazo para el que fue autorizada, debiendo estar finalizado el mismo a los siete días, procediéndose a hacerlo, en caso contrario, por los servicios municipales, en ejecución subsidiaria, con gastos, por consiguiente, a cargo de los que la hubiesen realizado y subsidiariamente a cargo de quienes la promuevan.

## **2. ATALA.- KARTELAK ETA PANKARTAK JARTZEARI DAGOKIONA**

## **SECCION 2 DE LA COLOCACION DE CARTELES Y PANcartAS**

**46.- ARTIKULUA.-** Hona hemen zer diren ondokoak, Ordenanza honen ondoreetarako:

a) Kartelak: Paperean zein sendotasun gutxiko beste materialen baten gainean inprimatu edo pintatutako iragarkiak, formatua dena delarik ere, gainazal batean jarri zein egiturazko elementu batetik eskegi daitezkeenak.

**ARTICULO 46.-** A los efectos de la presente Ordenanza se entenderá por:

a) Carteles: Los anuncios impresos o pintados sobre papel u otro material de escasa consistencia, sea cual sea su formato, susceptibles de ser fijados a una superficie o colgados de un pequeño elemento estructural.

b) Pankartak: Publizitateko iragarkiak edo tamaina handikoak, lantzean behin herri bidean jarri zein egiturazko elementuren batera erantsi ohi direnak.

Ordenanza honen esparrutik kanpo geratzen dira Udal Ordenanzek kanpoko publizitatearen gainean xedatzen dutena betetzen duten publizitateko kartelera eta hesiak.

**47. ARTIKULUA.-** 1. Debekatuta dago kartelak eta eranskailuak jarri eta itsastea udalerriko egiturazko edozein elementutan, hala nola, higiezin, horma, hormatxo, zubi, pareta, hesi, harresi, espaloi, hiri altzarietako elementuetan eta halakoetan, Udalak berariaz baimentzen dituen tokietan salbu.

2. Aurreko zenbakian xedatu denetik salbuesten dira hauteskunde politikoen garaian kartelak eta eranskailuak jartzea, horren gaineko berariazko erabakia hartuko baita, eta establezimenduetako erakusleihotan kartelak jartzea.

**48. ARTIKULUA.-** Herri bideetan pankartak jartzea ondoko kasuetan soilik baimenduko da:

- a) Hauteskunde politikoen garaian.
- b) Auzuneetako tradiziozko edo herri jaietan.
- c) Alkatetza-Udalburutzak berariaz adierazten dituen egoeretan.

2. Pankartetan propaganda politikoa zein herritarra baino ez da jarriko, beste inolako publizitaterik sartu gabe.

**49. ARTIKULUA.-** Pankartek bete behar dituzten baldintzak Alkatetza-Udalburutzak

b) Pancartas: Los anuncios publicitarios o de gran tamaño, situados ocasionalmente en la vía pública o adosados en algún elemento estructural.

Quedan fuera del ámbito de esta Ordenanza, las carteleras y vallas publicitarias sometidas a lo que dispongan las Ordenanzas Municipales sobre publicidad exterior.

**ARTICULO 47.-** 1. Queda prohibida la colocación y pegado de carteles y adhesivos en cualquiera de los elementos estructurales del Municipio, como son sus inmuebles, muros, muretes, puentes, paredes, vallas, tapias, aceras, elementos de mobiliario urbano y otros análogos, excepto en aquellos que expresamente autorice el Ayuntamiento.

2. Se exceptúa de lo dispuesto en el número anterior la colocación de carteles y adhesivos en tiempo de elecciones políticas, que será objeto de acuerdo específico y la colocación de carteles en los escaparates de los establecimientos.

**ARTICULO 48.-** 1. La colocación de pancartas en la vía pública solamente se autorizará:

- a) En período de elecciones políticas.
  - b) En períodos de fiestas populares o tradicionales de los barrios.
  - c) En las situaciones que expresamente se señalen por la Alcaldía-Presidencia
2. Las pancartas solamente podrán contener propaganda, de tipo político o de tipo popular, sin incluir ninguna otra clase de publicidad.

**ARTICULO 49.-** Las condiciones que deberán cumplir las pancartas serán señaladas por la

ematen duen baimenean zehaztuko ditu. Edonola ere, ondoko baldintzok nahitaez beteko dituzte:

- a) Euskarria ez da metalezkoa izango.
- b) Jartzeko gutxieneko altuera, punturik baxuenetik neurtuta, sei metrokoa izango da pankartak galtzada zeharkatzen badu, eta hiru metrokoa espaloi, pasealeku eta oinezkoentzako beste gunetan.

**50. ARTIKULUA.-** Kartelak eta pankartak baimena eman zitzaieneko epea agortu eta biharamunean hasiko dira kentzen, eta zazpi egunean kenduta egon beharko dute, bestela, udal zerbitzuek kenduko dituzte, ordezko egintzan, eta gastuak, jarri dituztenen edo bestela sustatzen dituztenen kontura joango dira.

Edonola ere, kartelak eta pankartak kentzeko eutsi zaieneko gainazalari kalterik eragiten ez dieten bitarteko edo sistemak erabiliko dira.

**51. ARTIKULUA.-** Arauak urratzearen erantzuleak izango dira arauak urratzen dituztenak, eta bestela, hala egitea sustatzen dutenak, ulertzen baita beraiek ateratzen diotela etekina egindako propaganda edo publizitateari.

**52. ARTIKULUA.-** Arauak urratzen dituzten jarrerak zehatz-mehatz mugatzeko, kartel, pintada, pankarta, eta halako bakoitza izango da zehatzeko gaia.

Alcaldía-Presidencia en la autorización que se expida a tal efecto. En cualquier caso, deberán cumplir las siguientes condiciones:

- a) El elemento de sujeción no podrá ser metálico.
- b) La altura mínima de colocación, medida en el punto más bajo, será de seis metros cuando la pancarta atraviese la calzada, y de tres metros en aceras, paseos y otras zonas de peatones.

**ARTICULO 50.-** La retirada de carteles y pancartas será iniciada al día siguiente al del vencimiento del plazo para el que fueron autorizados, debiendo estar finalizada la misma a los siete días, procediéndose a hacerlo, en caso contrario, por los servicios municipales, en ejecución subsidiaria, con gastos, por consiguiente, a cargo de los que la hubiese realizado y subsidiariamente a cargo de quienes las promueven.

En cualquier caso en su retirada serán utilizados aquellos medios o sistemas que no produzcan daños en la superficie soporte de los mismos.

**ARTICULO 51.-** Serán responsables de las infracciones quiénes las realicen, y, subsidiariamente quiénes las promuevan, por entenderse que éstos son los beneficiarios de la propaganda o publicidad realizada.

**ARTICULO 52.-** Al objeto de precisar la delimitación concreta de las conductas que constituyen infracción, se establece que será objeto de sanción cada cartel, pintada o, pancarta etc.

## VIII. KAPITULUA

### ARAUBIDE JURIDIKOA

## CAPITULO VIII

### REGIMEN JURIDICO

## **LEHEN ATALA: PROZEDURA**

**53. ARTIKULUA.-** Procedura ofizioz abiaraziko du Udal Administrazioak berak, eskomenez dagozkion ikuskatu eta egiaztatzeko eginkizunetan oinarrituz, edo alderdiren batek jarritako salaketaren ondorioz.

Ordenanza honetan aurreikusten ez diren kontuetan, udal zehapenak kobratzeko bertoko araudiai jarraituko zaio.

**54. ARTIKULUA.** 1. Pertsona natural zein juridiko orok eman ahal eta eman beharko dio Udalari Ordenanza honen edozein urratzeren berri.

2. Jakinarazpena jaso eta jakinarazi duenaren nortasuna egiaztatu ondoren, egitateak aztertzeko espedientea abiaraziko da, aurreko artikuluetan adierazi diren izapideei jarraituz eta behar diren badaezpadako neurri guztiak hartuz, amaierako ebazpenera heldu arte

## **SECCION PRIMERA: PROCEDIMIENTO**

**ARTICULO 53.-** El procedimiento se iniciará de oficio por la propia Administración Municipal, en virtud de la función inspectora y de comprobación propia de su competencia, o a instancia de parte mediante la correspondiente denuncia.

En lo no previsto en esta Ordenanza se aplicará la normativa local para el cobro de las sanciones municipales.

**ARTICULO 54.-** 1. Toda persona, natural o jurídica, podrá y deberá dar parte al Ayuntamiento de cualquier infracción de la presente Ordenanza.

2. Recibida la comunicación y comprobada la identidad del comunicante, se incoará el oportuno expediente en averiguación de los hechos, siguiéndose los trámites indicados en los artículos procedentes, con la adopción de las medidas cautelares necesarias, hasta la resolución final.

## **BIGARREN ATALA: UR RATZEAK ETA ZEHAPENAK**

**55. ARTIKULUA.-** Ordenanza honetan esandakoa ez betetzeak dagokion zehapen espedientea abiaraztea ekarriko du, Administrazioko Procedurako indarreko Legearen VI Goiburuko 21. Kapituluan ezarritakoa prozeduraren arabera.

**56. ARTIKULUA.-** Alkate jaunak ordenanza honen arauak urratzeak zehatuko ditu, Legearen ezarritako mugen barruko isunez eta bidezkoak liratekeen gainerako administrazio eta ondarezko

## **SECCION SEGUNDA: INFRACCIONES Y SANCIONES**

**ARTICULO 55.-** La contravención de lo prevenido en la presente Ordenanza generará la incoación del correspondiente expediente sancionador, conforme al procedimiento establecido en el Capítulo 21 del Título VI de la vigente Ley de Procedimiento Administrativo.

**ARTICULO 56.-** Las infracciones de los preceptos de esta Ordenanza serán sancionadas por el Sr. Alcalde, con multas dentro de los límites señalados por la Ley y sin perjuicio de la

erantzukizunak exijitzeari eragin gabe. Udalak maila goragoetara igorriko du zehapen espedientearen ebatzko eskaria, azaroaren 19ko 42/1975 Legean aurreikusten diren balizko kasuetan.

**57. ARTIKULUA.-** 1. Zehapenak aplikatzeko erru mailari, egindako hobenaren izaerari, urratzeak dakarren arriskuari, berreroria edo berregilea izateari, eta larriagotu ado arintzen duten gainerako inguru abarrei begiratuko zaie.

2. Egileak izango dira garbiketaren eta hondakinen bilketaren ondorioz herri jabariko ondasunetan eragiten diren kalteen erantzuleak, eta legozkiekeen zehapenak jasango dituzte.

**58. ARTIKULUA.-** Udal agintaritzak egin eta urratzaileak bete ez duen agindegia bakoitzarengatik zehapen bana ezarriko da. Urratze bera berriro egiteak gorako hurrengo mailako zenbatekoko isuna jartzea ekarriko du.

#### **59. ARTIKULUA.-**

1.- Hoben arina izango da 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15, 19, 27 (bigarren balizko kasua), 32, 33, 34, 35, 37, 41, 42, 45, 49 eta 50. artikuluak ez betetzea, eta 5.000tik eta 50.000 pezetarainoko isuna jarriko da.

2.- Hoben larria izango da 13, 27 (lehenengo balizko kasua), 28 eta 30. artikuluak ez betetzea, eta 50.001etik 100.000 pezetarainoko isuna jarriko da.

43. artikulua ez betetzea ere hoben larria izango da, eta honela zehatuko da:

- 50.000 pezetako isuna azalera porotsuan margotutako metro karratu bakoitzeko.

exigencia de las demás responsabilidades administrativas y patrimoniales a que haya lugar, o bien elevadas por el Ayuntamiento a instancias superiores en los supuestos previstos en la Ley 42/1975 de 19 de noviembre.

**ARTICULO 57.-** 1. En la aplicación de las sanciones se atenderá al grado de culpabilidad, entidad de la falta cometida, peligrosidad que implique la infracción, reincidencia o reiteración y demás circunstancias agravantes o atenuantes que concurran.

2. De los daños que se produzcan en los bienes de dominio público por la limpieza y recogida de los residuos, serán responsables sus autores y se atendrán a las sanciones a que hubiera lugar.

**ARTICULO 58.** Las sanciones serán impuestas por cada requerimiento de la autoridad municipal no cumplido por el infractor. La reiteración en la misma infracción conllevará la sanción de importe inmediato superior.

#### **ARTICULO 59.-**

1. Será considerado falta leve y sancionado con multa de 5.000 a 50.000 pesetas el incumplimiento de los artículos 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15, 19, 27 (segundo supuesto), 32, 33, 34, 35, 37, 41, 42, 45, 49 y 50.

2. Será considerada falta grave y sancionado con multa de 50.001 pesetas a 100.000 pesetas el incumplimiento de los artículos 13, 27 (primer supuesto), 28 y 30.

Igualmente será considerado falta grave el incumplimiento del artículo 43 y sancionado con:

- Multa de 50.000 pesetas por metro cuadrado de pintada efectuada sobre superficie porosa,

Margotzeagatik, 150.000 pezetako zehapena da gehieneko kopurua.

- 25.000 pezetako isuna azalera ez porotsuan margotutako metro karratu bakoitzeko. Margotzeagatik, 150.000 pezetako zehapena da gehieneko kopurua.

47. artikulua ez betetzea ere hoben larria izango da, eta honela zehatuko da:

- 10.000 pezetarainoko isuna, jartzen den DIN A3 neurriko edo neurri txikiagoko kartel bakoitzeko, zinta eransgarriz edo antzekoz.

- 15.000 pezetarainoko isuna, jartzen den DIN A3 neurriko edo neurri txikiagoko kartel bakoitzeko, kolaz edo antzekoz.

- 13.000 pezetarainoko isuna, jartzen den DIN A3 neurriko edo neurri handiagoko kartel bakoitzeko, zinta eransgarriz edo antzekoz.

- 13.000 pezetarainoko isuna, jartzen den DIN A3 neurriko edo neurri handiagoko kartel bakoitzeko, zinta eransgarriz edo antzekoz.

- 21.000 pezetarainoko isuna, jartzen den DIN A3 neurriko edo neurri handiagoko kartel bakoitzeko, kolaz edo antzekoz.

3.- Hoben oso larria izango da 29. eta 40. artikuluk ez betetzea, eta 100.001etik 150.000 pezetarainoko isunaz zehatuko da.

con el límite máximo de sanción por pintada de 150.000 pesetas.

- Multa de 25.000 pesetas por metro cuadrado de pintada efectuada sobre superficie no porosa, siendo igualmente la cuantía máxima de sanción por pintada de 150.000 pesetas.

Asimismo, será también considerado falta grave el incumplimiento del artículo 47 y sancionado con:

- Multa de hasta 10.000 pesetas: la colocación de cartel de tamaño DIN A3 y menor sujeto a la superficie con cinta adhesiva, cinta adhesiva o similar.

- Multa de hasta 15.000 pesetas: la colocación de cartel de tamaño DIN A3 y menor adherido a la superficie con cola o similar.

- Multa de hasta 13.000 pesetas: la colocación de cartel de tamaño superior a DIN A3 y sujeto a la superficie con cinta adhesiva, cinta adhesiva o similar.

- Multa de hasta 13.000 pesetas: la colocación de cartel de tamaño superior a DIN A3 y sujeto a la superficie con cinta adhesiva, cinta adhesiva o similar.

- Multa de hasta 21.000 pesetas: la colocación de cartel de tamaño superior a DIN A3 y sujeto a la superficie con cola o similar.

3.- Será considerado falta muy grave y sancionado con multa de 100.001 pesetas a 150.000 pesetas el incumplimiento de los artículos 29 y 40.

## **INDARGABETZEN DUEN XEDAPENA**

**BAKARRA:** Indarrik gabe geratzen dira Ordenantza honetan jaso diren gaien gaineko

## **DISPOSICION DEROGATORIA**

**UNICA:** Quedan derogadas todas cuantas disposiciones del mismo o inferior rango que

maila bereko zein beheragoko xedapen guztiak, hemen esaten denaren aurkako edo bestelakorik dioten neurrian.

### **AMAIERAKO XEDAPENA**

**BAKARRA:** Alkatetza-Udalburutzari ahalmena ematen zaio, berariaz, hemengo arau guztiak interpretatu, argitu eta garatzeko, eta behar denean, Ordenantza honetan antzeman litezkeen arau hutsuneak betetzeko, baita aplikazio hoberako beharrezko eta bidezkoak diren xedapenak emateko ere, jurisdikzioaren bidetik letozkeen helegiteak oztopatu gabe.

regulen materias contenidas en la presente Ordenanza en cuanto se opongan o contradigan el contenido de la misma.

### **DISPOSICION FINAL**

**UNICA:** Se faculta, expresamente, a la Alcaldía para interpretar, aclarar y desarrollar las anteriores reglas y en lo necesario, suplir los vacíos normativos que pudieran observarse en los preceptos contenidos en esta Ordenanza, así como para dictar las disposiciones necesarias y consecuentes a su mejor aplicación, sin perjuicio de los recursos que en vía jurisdiccional fuesen procedentes.

**DILIGENCIA:** Se extiende para hacer constar que en el presente texto de fecha 29-5-92, se recoge la nueva modificación habida en su artículo 59, modificación inicialmente aprobada en sesión plenaria de 24-11-00.

En el BOB nº 244, de fecha 21-12-00, se publica el anuncio de esta modificación. No habiéndose presentado ninguna reclamación o sugerencia y entendiéndose definitivamente adoptado el acuerdo, se publica íntegramente su texto en el BOB nº 49, de fecha 9-3-01, para su entrada en vigor transcurridos quince días desde su publicación.

Getxo, 19 de marzo de 2001.

EL SECRETARIO

**DILIGENCIA:** Se extiende para hacer constar que el presente texto, ha sido modificado en su artículo 59 por acuerdo plenario de 24-11-00. En el BOB nº 49, de 9-3-01, se publica íntegramente el texto de este artículo 59 modificado.

Getxo, 19 de marzo de 2001.

EL SECRETARIO